

2026-2027 IKASTURTEAN ESKOLA-JANTOKIAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. OINARRIAK.

Ikastetxeetako jantokietan jateko dirulaguntzak prestazio ekonomikoak eta laguntzak dira, puntualak, subsidiarioak, ez-aldizkakoak eta manuari jarraitu gabeak, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako epean beren seme-alaben eskolako jantokiko berariazko gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten familiei zuzendua.

Ikastetxeetako jantokietan jateko laguntza hauek helburu jakin baterako dira, eta eman diren helbururako baino ez dira erabiliko.

2. PRESTAZIOAREN HELBURUA

Deialdi honen xedea da gizarte zerbitzuen arloko dirulaguntzak ematea, banakako ebaluazio araubidean, Estella-Lizarran, Muniain-Aberinen eta Morentinen erroldaturik dauden eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloan (3 – 6 urte) edo Lehen Hezkuntzan Lizarrako ikastetxeetan matrikulaturik dauden ikasleei, eskolako jantokiko gastuak ordaintzeko.

3. DEIALDIAREN AURREKONTUA

Gaur egun, deialdi honetako gastuaren onespenerari aurre egiteko, aurrekontu-aldaketa bat onartu da, eta jendaurrean erakusteko aldiari dago; beraz, dirulaguntza emateko ebazpena aurrekontu-aldaketa indarrean sartzearen baldintzapean dago.

2026/2027 ikasturtea finantzatzeko aurrekontua 17.640 eurokoa da gehienez, eta 2026rako indarrean dagoen 23110-4890003 "Eskola-jantokiak" aurrekontu-aplikazioaren kontura ordainduko da, 12.640 euroko

zenbatekoarekin, betiere aurrekontu-aldaketa behin betiko onartzen bada, eta 2027ko aurrekontuan haren baliokide den 5.000 euroko aurrekontuaren kargura, baldin eta 2027ko aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa badago. Behin aurrekontu horretara iritsita, hurrengo eskaerak ukatuko dira.

4. ESKATZAILEAK ETA BETEBEHARRAK

Laguntza hauek jasotzen ahalko dituzte baldintza hauek betetzen dituzten familia unitateek:

- a) Eskabidea aurkezten denean eta laguntza jasotzen den bitartean, Estella-Lizarran, Muniain-Aberinen eta Morentinen (adingabea, aita, ama, izatezko bikotekidea edo antzeko afektibitate-harremana duten beste pertsona batzuk edo berarekin bizi diren adingabeen tutoreak) bizi eta erroldatuta egotea.
- b) Haur Hezkuntzako bigarren zikloan (3-6 urte) edo Lehen Hezkuntzan eskolatutako adingabeak ardurapean izatea.
- c) Kontzeptu guztiengatik ondorengo taulatik beherako diru-sarrerak izatea familian:

FAMILIA UNITATEKO KIDE KOPURUA	Diru-sarreraren muga 2025ean
2	19.704 €
3	23.352 €
4	25.542 €
5	27.731 €
6 edo gehiago	29.179 €

1.5 RG 2025ean eguneratutako zenbatekoak.

- d) Familia-unitateko kideak zenbatzeko orduan, kide bat gehiago hartuko da kontuan honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean: guraso bakarreko familiak, familia ugariak eta laguntza eskatzen duen adingaberen batek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen familiak, betiere egoera behar bezala egiaztatuta badago.
- e) Estella-Lizarrako, Morentingo edo Muniain-Aberingo Udalarekiko betebeharrak ordainduta izatea. Hori ofizioz egiaztatuko da.
- f) Onuradunek, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikularen e) letraren arabera eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 223. artikulua aldatzen duen apirilaren 14ko 7/2014 Foru Legean ezarritakoaren arabera, egunean izan beharko dituzte Estella-Lizarrako Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.
- g) Deialdi honetan eskatutako eskabidea eta agiriak ezarritako epeetan aurkeztea.

5. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten familia unitateek 1,12 euroko dirulaguntza jasoko dute egunean jantoki zerbitzua erabiltzen duen adingabe bakoitzeko.

6. . ESKATZEKO ETA EMATEKO PROZESUA

- 1. Eskabidea Estella-Lizarrako Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan erregistratuko da, ekainaren 1etik 5era.
- 2. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - a) Familia-liburua, edo, bestela, hura ordezkatzeko duen dokumentazioa.

- b) Familia-unitatearen diru-sarreraren justifikazioa (PFEZ 2025 edo Erantzukizunpeko Aitorpena, aurkeztu beharrik ez badu). Kalkulua egiteko, ondoko hauen batura hartuko da: zerga-oinarriaren zati orokorra (507 laukia), aurrezkiaren likidazio-oinarria (8840/8841 laukiak) eta errenta salbuetsiak (529 laukia).
 - c) Banantze edo dibortzio kasuan, epai edo hitzarmen arautzailearen kopia, eta epaian ezarritako ekarpen ekonomikoen banku-ziurtagiriak.
 - d) Zaintza partekatua izanez gero, bi gurasoen diru-sarrerak aurkeztu beharko dira.
 - e) Laguntza eskatzen duen adingaberen batek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen familien kasuan, desgaitasun-ziurtagiria.
 - f) Familia ugarien edo guraso bakarreko familien kasuan, egoera horren egiaztagiria indarrean.
3. OGZko profesionalek eskaera baloratuko dute, eta, balorazioa positiboa bada, dagokion familiari eta ikastetxeari jakinaraziko diete, laguntza jasoko duten familien zerrendan sartuta.
 4. Eskabideak erregistro-hurrenkeraren arabera antolatuko dira. Berrikusitakoan, ezarritako baldintzak betetzen dituzten guztiei emanen zaie, kreditua agortu arte.
 5. Aurkeztutako eskaerak irailaren 1a baino lehen ebatziko dira.
 6. Eskola jantokietarako dirulaguntza Alkatetzaren ebazpen baten bidez emanen da, Gizarte Gaietako hurrengo batzordean horren berri emanda.

7. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA.

Dirulaguntza eman ondoren, ikastetxe bakoitzeko jantokia kudeatzen duen erakundeari ordainduko zaio zuzenean, eskolako jantokia kudeatzen duen entitateak faktura aurkeztu ondoren.

8. PERTSONA ONURADUNAREN ETA ESTELLA-LIZARRAKO UDALAREN ARTEKO HARREMAN JURIDIKOAREN EDUKIA, EMAKIDA EKONOMIKO HORREN ONDORIOZ

8.1 BETE BEHARRAK

Familia unitate onuradunek betebeharrak hauek izanen dituzte:

- a) Deialdi honetan arautzen den helburua betetzea.
- b) Eskudun organoari eskakizunak eta baldintzak betetzen direla eta eskolako jantokira joan direla frogatzea.

Jantokira joaten ez diren egunak ez dira inolaz ere diruz lagunduko.

- c) Kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-kontrol eta egiaztapeneko jarduerari men egitea, aurreko jarduerak burutzerakoan eskatzen zaien eta udal-artxiboetan jasota ez dagoen informazio guztia aurkeztuz.
- d) Honako egoera hauetan gertatzen diren aldaketak jakinaraztea: jangelarako altak eta bajak, eskolatze-zentroa aldatzea, bizilekua aldatzea.

8.2 JASOTAKO ZENBATEKOAK ITZULTZEA

Laguntza itzuli beharko da eskatzaileak arau-hausteren bat egiten badu edo laguntza ekonomiko horiek zehazten dituzten arauak betetzen ez baditu:

- a) Itzulketa osoa: jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira, eta berandutza interesak ere eskatuko dira, dirulaguntza ordaindu zenetik zenbatzen hasita, honako kasu hauetan:

- Dirulaguntza lortzea eskatutako baldintzak bete gabe.
 - Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez betetzea.
 - Oinarri hauetan aipatutako egiaztatze-lanak egin beharra eragozteia edo ukatzea.
- b) Zati bat itzultzea: Dirulaguntzaren zati bat itzuli beharko da, edozein kontzepturengatik lortutako sarreren zenbatekoari eta justifikatu gabeko gastuen zenbatekoari dagozkien gastuak justifikatzen ez direnean.

8.3 ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Dirulaguntza eta laguntza publikoen arloko arau-hauste administratibotzat hartuko dira honako jokabide hauek, baldin eta doloa, errua edo zabarkeria hutsa tartean badira:

- h) Laguntza edo dirulaguntza bat lortzea hura emateko eskatutako baldintzak faltsutuz edo hura ematea eragotzi edo mugatuko zuten baldintzak ezkutatuz.
- i) Dirulaguntza ematearen ondorioz onuradunak bere gain hartutako betebeharrak ez betetzea, onuradunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

8.4 DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA

Deialdi hau agiri honetan jasotako oinarriek arautuko dute, eta bertan aurreikusten ez den orotan, honako araudi honetan ezarritakoak:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.
- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, eta, osagarri gisa, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra.
- Dirulaguntzei buruzko foru-araudia.

8.5 INTERESDUNEI JAKINARAZTEA ETA ERREKURTSOAK

Familia-unitate interesdunei beren eskubide eta interesei eragiten dieten administrazio-ebazpen eta -egintzak jakinarazteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40., 41., 42., 43., 44., 45. eta 46. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

Oinarri hauen eta berauek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka, hautara, ondorengo errekurtsiak jarri ahal izanen dira:

- Berraztertzeke errekurtsioa, administrazio egintza egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen epe hori.

9. INTERPRETAZIOA

Deialdi honetan sor daitezkeen arazoaren ebazpena Estella-Lizarrako Udalaren eskumen eksklusiboa izanen da. Oinarri hauetan aurreikusten ez den orotan, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza aplikatuko da, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren Erregelamendua ere, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia, bai eta haiekin bat heldu diren eta aplikatzekoak diren gainerako arauak ere.

10. DATUAK BABESTEKO KLAUSULA

Datuak babesteko araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu dirulaguntza kudeatzeko erabiltzen diren datu pertsonalak Estella-Lizarrako Udalak tratatuko dituela, dirulaguntzak kudeatzeko.

Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita beste eskubide batzuk ere, udal bulegoetara joz, edo posta elektronikoa honetara: dpd@estella-lizarra.com.

Jakinarazten dizugu datuak deialdian ezarritakoaren arabera jakinaraziko zaizkiola ikastetxe bakoitzeko jantokia kudeatzen duen erakundeari eta araudian ezarritako kasuetan.

Informazio zehatza pribatutasun-politikan aurki dezakezu, webgunea: www.estella-lizarra.es